




adats 'buruko ile multzo luzea'	«Gorantza bortizki altxatzen zuela haizeak Martinaren adats luzea eta gero behera poliki-poliki bueltatzen zela...»	(45)
aharrausika 'aho zabalka'	«Zenbat kolpe jaso ote ditu telebistaren aurrean aharrausika dagoen gizonak.»	(92)
ahul 'indargea'	« Ahul , indarrrik gabe heltzen dira bertara herriko argiak...»	(113)
aiene 'deitorea, kexua'	«Intziri zaratatsua bota nahiko luke, aienez betea eta ileari tira egin.»	(108)
aitatu 'aipatu'	«Eszenatokian danbor hotsen artean haren izena aitatzen dutenean...»	(103)
algara 'barre oihua'	«Pasatu den astean pelikula bat ikusten zegoela barre algara batek irten zion barru-barrutik...»	(18)
amatatu 'itzali'	«Sua amatatzeko denbora izan du bakarrik eta amantala jantzita atera da karabanatik.»	(106)
arakatu 'miatu'	«Supermerkatuko pasilloetan aurrera doala, bazter guztiak arakatzen ari da begiekin.»	(26)
arrakala 'arraila'	«Zopa eta oilaskoa, erantzun dio Nadiak ezpain gogortuen artetik ireki zaion arrakala estu batetik.»	(107)
arrasto 'aztarna'	«...eta orduan haren emaztea imajinatu du arrastoen aurrean garrasika.»	(129)
atondu 'antolatu'	«Aita gurea egin du atearen aurrean, gona atondu du, eskumuturrekoak ondo jarri ditu eta...»	(30)
azazkal 'atzazala'	«...burua altxatu eta gorri koloreko azazkalei begira geratu zen.»	(77)
barik 'gabe' ('bagerik' zah.)	«Musikak piztia baretuko duen itxaropena galdu barik , gizonak eztabaida ahazteko ahalegina egin du...»	(11)
barru-barrutik 'guztiz barrenetik'	«Pasatu den astean pelikula bat ikusten zegoela barre algara batek irten zion barru-barrutik ...»	(18)
bart 'atzoko gaua'	« Bart gauetz lo geratu orduko hiru aldiz irakurtzen saiatu eta bukatu ezin izan zuen paragrafoa erreparatzen hasi da...»	(53)
batel 'txalupa mota'	«...txalupak burdinazko noraiaren gainera, eta, batelen kulunkari beri dagoela, esku artean zerbait ezkututzen du.»	(43)
behea hartu 'erretzearen ondorioz itsatsi'	«Su txikian izan duen txokolateari bueltak ematen ari da behin eta berriz, behea hartu ez dezan.»	(30)
behintzat 'behinik behin'	«Horrela geratu zaio buruan grabatuta behintzat .»	(108)
berba egin 'hitz egin'	«Mila eseritako lekutik urrunegi zegoen berba egin ahal izateko...»	(75)
bits 'aparra'	«Bikoteari begira, iluntasunaren bitsezko lerro zuriak osatzen dituzten olatuen soinua entzun dezakeela iruditu zaio.»	(114)
borra 'hondakina'	«Paper pusketak zakarrontzira bota ditu eta, kafearen borrarekin nahastuta ikusi dituenen...»	(19)
bortitz 'gogorra'	«Antionioren gorputzak haize bortitzetik babesten duela, begiak itxi ditu.»	(81)
botaka egin 'oka egin'	«Azken irudi honek botaka egiteko gogoia eman dio.»	(131)
bukatu 'amaitu'	«...baina Andresek bukatu arte ezer ez esatea erabaki du.»	(133)



dastatu 'zaporea probatu'	«Martinaren ahoaren ezia dastatu zuenean...»	(46)
demontre 'deabru'	«Non demontre sartu da zara?»	(131)
doministiku 'usina'	«Esaldia doministiku baten abiaduraz atera zaio barrutik emakumeari.»	(10)
emagaldu 'sexu-lanbidea duen	«Lehen unean, emagalduak ezagutuko zuelakoan beldurtu egin da, baina orain,...»	(36)
eskegi 'eseki, zintzilikatu'	«Telefonoa eskegi ondoren, mahai gainean dauden giltzei begira jarraitu du Anek.»	(100)
eskuila 'zepilloa'	«Haginak garbitu ondoren lababoaren gaineko edalontzian eskuila uzteko zerabilen automatismo bera ikusi zuen Felixek...»	(61)
eskuin 'eskuma'	«Haren sorbalda jarri du bere buruaren pisua, eta eskuin aldera begiratzean...»	(81)
ezbai 'zalantza'	«... ezbaian dabilen eskuari aginduak ematen hasi da.»	(113)
frenetiko 'eroaldiak jotakoa'	«Bilera amaitzerako, frenetikoa zen Alejandroren bekainen mugumendua.»	(65)
friso 'eraikuntzetako apaingarria'	«Orduan abiatuko da Aleksander eszenatokiko argirantz, eta frisoaren babesean geratutako Nadiak haren traje estu ... ikusiko du.»	(103)
galdetu 'itaundu'	«Jenniferrek, ezer galdetu gabe, izter artean sartu du...»	(85)
galtzarbe 'besapea'	«... galtzarbean airea sartzen utziz.»	(123)
gandor 'gangarra'	«Ez gandor zuria duten olatu indartsuak bezala, bata bestearen atzetik etorri zaizkio malkoak.»	(117)
gar 'erretzearen gas argitsua'	«... gar bihurtutako suziriak lurrera jausten diren moduan.»	(103)
garrasi 'oihua'	«Ez zitzaion eztarritik garrasirik atera.»	(73)
garrasika 'oihuka'	«...eta orduan haren emaztea imajinatu du arrastoen aurrean garrasika .»	(129)
gonbita egin 'gonbidapena'	«Legatza bukatu dutenean, Arregi andreak saloira pasatzeko gonbita egin die, kafea hartzera.»	(37)
gonbita egin 'gonbidatu'	«...urre koloreko erlojuari begiratu dio eta bere kotxerantz joateko gonbita egin dizu, zure gerriari helduz.»	(122)
hagin 'hortza'	«Korrika atera zen etxetik, nora ezean, haginak estututa eta bihotza zalapartaka.»	(73)
harrotu 'puztu'	«Itsasotik datozen haize bolada kresaldunek harrotu egin dituzte izarak...»	(45)
hasperen 'hasbeherapena, suspirioa'	«Ezetz erantzun zion Milak, eta belarri alboan senarraren hasperena sentitu ondoren...»	(77)
hondar 'hondakina'	«...lurrera begira, oinekin hondarra alde batetik bestera darabilela.»	(115)
hots 'zarata'	«Halako batean, hotsa entzun du.»	(19)
hunkitu 'zirrara eragin'	«Bai, hunkitu duen zerbait esan dio neskari.»	(116)



hurreratu 'hurbildu'	«Santi hurreratu egin zaio, kokotsean eskua jarriz burua altxatu dio eta, haren begi argiak gorrituta ikusi dituenean...»	(20)
igarri 'asmatu'	«Gizonak bigarren martxa jarri du eta bihurgunean sartu dira, haren bueltan aurkituko dutena igarri gabe.»	(12)
ile-xerlo 'ile multzoa'	«Mutilak neskaren belarri atzera eraman du haren aurpegia estaltzen duen ile-xerloa .»	(113)
iluntze 'arrastia'	«...koadrilarekin batera hondartzara pipak jatera joandako iluntzeren batean, eta lehengusuak esan zion...»	(44)
inbidia 'bekaizkeria'	«Eta inbidia sentitu du.»	(116)
intziri 'deiadarra'	« Intziri zaratatsua bota nahiko luke, aienez betea eta ileari tira egin.»	(108)
irrika 'gogo bizia'	«...herrira uda pasatzen joateko maleta prestatzen , bera, Markos, berriz ikusteko irrikaz .»	(44)
itsatsi 'lotu, erantsi'	«Eskuineko eskua martxa aldatzeko palankaren gainean jarrita dauka eta begirada aurrean duen aldapan itsatsita .»	(9)
izara 'maindirea'	«... izaretatik aterata, gorriz pintatutako azazkalak erakusten...»	(73)
jaurti 'indarrez bota'	«Burutik pasatzen zaion guztia aurrekoari jaurtitzeko orduan fotokopiak egiten dituen emakumea espezialista dela pentsatu du...»	(89)
josi 'iltzatu'	«Eta batak bestearen zurbiltasuna ikusi gabe, begiak autoak argitutako errepide zatian josita , aurrera egin dute.»	(14)
kalatxori 'kaioa, itsastxoria'	«...berriz geratzen da batelei eta itsasbeherak agerian utzitako haitzetan dauden kalatxoriei begira.»	(43)
kamamila 'sendabelar mota'	«Afariko tresnak garbitu ditu eta sofán eseri da, kea botatzen duen kamamila aurrean duela.»	(26)
kar-kar 'barrearen onomatopeia'	«... kar-kar , eta begiak txikitzen zaizkio, hain entzuten ditu ozen barreok.»	(105)
kobazulo 'leizea'	«Supermerkatuko plastikozko poltsa batean zeramatzan zaborrak edukiontzian sartu eta korrika bueltatu zen kobazulora .»	(62)
kopeta 'bekokia'	« Kopeta leihoaren kontra duela, kalera begira dago Ane.»	(95)
korridore 'karrejua, pasilloa'	«...eta haren takoién zalaparta korridoretik urruntzen entzun duenetik ez du lerro bakarra irakurri.»	(114)
kresaldun 'itsasoko gatza duena'	«Itsasotik datozen haize bolada kresaldunek harrotu egin dituzte izarak...»	(45)
kulunka 'zabu-zabuka'	«...txalupak burdinazko noraiaren gainean, eta, batelen kulunkari begira dagoela, esku artean zerbait ezkututzen du.»	(43)
labain egin 'laprast egin'	« Labain egin dute hitzek bere burutik ahora, eta bere ahotik autoaren atmosfera kondentsatura.»	(11)
liskar 'istilua'	«...ez du kalean sortu den liskarra entzuten...»	(82)
lixa-paper 'lixatzeko papera'	«...Arregi jaunak lixa-papera sentitu du samatik behera jaisten.»	(35)
logura 'logalea'	«Batak besteari bizkarra erakutsi diote eta loguraren zain geratu dira. Begiak irekita biak.»	(57)
lurrin 'usaina'	«...eta sudurra jarri du haren kamisetaren gainean lurrin hori hobeto harrapatu ahal izateko...»	(82)



magnesio 'metalen saileko gaia'	« Magnesioak zuritutako Aleksanderren eskuei begira dago Nadia.»	(103)
mahuka 'besoa estaltzen duen atala'	«Alkandorako mahuka ukondoraino altxatu zuenean begi bistan utzi zuen besaurre sendoa...»	(75)
mantso 'astiro'	« Mantso baina etengabe.»	(117)
mardul 'potoloa'	«Zinemara joateko aukera baztertuta, azken asteetan amaitu ezinik dabilen liburu mardula hartu du esku artean eta sofan eseri da.»	(53)
maskor 'moluskuen azala'	«Markosek poliki-poliki sartu du praktako atzeko poltsikoan Martinaren izena grabatua duen maskorra .»	(49)
miatu 'arakatu, ikertu'	«Itsua itsuan miatu duzu ingurua eta azkenean aurkitu duzu.»	(126)
mingain 'mihia'	«...eta ahoaren zaporea dastatu nahi izango balu bezala, mingaina pasatu du ezpainetatik.»	(129)
noraia 'itsas tresna, garabia'	«...txalupak burdinazko noraiaren gainean, eta, batelen kulunkari beri dagoela, esku artean zerbait ezkututzen du.»	(43)
oharkabe 'konturatu gabe'	«Orduan, ia ahaleginik egin gabe eta ia oharkabe an, hitz batzuk atera zaizkio ahotik.»	(11)
ohitura 'ekandua'	«...benetan ohitura txarra dela uste du.»	(89)
olatu 'uhina'	«Ez gandar zuria duten olatu indartsuak bezala, bata bestearen atzetik etorri zaizkio malkoak.»	(117)
orban 'zikinunea'	«Popatik hartzera hezetasun orban beltzez betetako paper margotua...»	(82)
orga 'gurdia'	«Erosketako orgatik eskuak askatu gabe, begiak ireki eta berriro begiratu dio ile zuriko gizonari.»	(23)
ortozik 'oinutsik'	«...egongela hartan krema koloreko sofan eserita, ortozik alfonbraren leuntasuna sentituz.»	(82)
ozen 'ahots altuan, boz goraz'	«Sorbaldan jarrita duen ezkerreko belarritik Antonioren taupadak entzun ditu, gero eta ozenago ...»	(85)
papar 'bularraren goialdea'	«...neskak halako batean haizea indarrez hartu duela iruditu baitzaio eta paparra puztu ondoren aire guztia bota duela gogoz...»	(115)
pareta 'horma'	«Egongelako paretan itsatsita dagoen egutegiak erakusten dio hiru hilabete igaro direla ordutik.»	(18)
piztia 'animalia basatia'	«Musikak piztia baretuko duen itzaropena galdu barik, gizonak eztabaida ahazteko ahalegina egin du...»	(11)
popatik hartzera bidali 'antzarak ferratzera bidali'	«...orduko ia ehun kilometroko abiadurak ematen dion indar sentazioaz mundua popatik hartzera bidaliz .»	(82)
sabel 'tripa'	«...hondartzara heltzean zituen kezka guztiak hegan atera zaizkio sabeletik .»	(115)
sama 'lepoa, iduna'	«...Arregi jaunak lixa-papera sentitu du samatik behera jaisten.»	(35)
sarraila 'kisketa'	«Bat, bi eta hiru buelta eman zizkion sarrailari , eta alaben gelaren aurretik isilpean pasatu ondoren...»	(67)
sikatu 'lehortu'	«Herri ezberdin bateko haizeak sikatu ditu karabana aurrean Nadiak eskegi dituen arropak...»	(104)
sorbalda 'bizkarra'	«Motorrak berriz ere bere bidea hartu duenean, Antonioren sorbalda izerditsuan hondoratu du burua.»	(85)



suziri 'bolandera'	«...gar bihurtutako suziriak lurrera jausten diren moduan.»	(103)
titi 'emakumeen ugatza edo	«Emakumearen titi biluziaren gainean atzeman zituen bere senarraren eskua eta haren urrezko eraztunaren distira.»	(73)
tripa 'sabela'	« Tripako mina. Antonio lehenbailehen bueltatzea baino ez du nahi Jenniferrek eta...»	(84)
txarrantxadun 'ezpataduna'	«...Stop, lurrean botatuko kate txarrantxadunak eta uniformeaz jantzitako hainbat gizon ikusi dituztenean.»	(12)
txilio 'ulua'	«Horregatik egin dio txilio , horregatik jarri da zoro baten moduan, eta horregatik esan dio joateko...»	(95)
txindata 'metalezko diskoak'	«Ez du txaloaren hotsa entzun, txindataz betetako musika heldu zaio belarrietara.»	(103)
txistu 'listua'	«Baina ez, ez dio irteten utzi, eta horretarako ari da behin eta berriz txistua irensten, sugeari ahotik irteten ez uzteko.»	(13)
txolarre 'kurloia, txori mota'	«...eta kotxearen barnean hara eta hona dabil hegan orain zure aienea, txolarre baten moduan bueltaka...»	(121)
ukondo 'ukalondo'	«Alkandorako mahuka ukondoraino altxatu zuenean begi bistan utzi zuen besaurre sendoa...»	(75)
ukondoko 'ukalondokada'	«Txistua irenstean mina sentitu du, saman ukondokoa eman baliote bezala.»	(118)
une oro 'denbora guztian'	«Eta une oro mantendu du irribarre lotsatia.»	(36)
urduri 'artega'	«komuneko ispiluaren aurrean dago, urduri .»	(29)
zabor 'sastarra, satsa'	«Supermerkatuko plastikozko poltsa batean zeramatzan zaborrak edukiontzian sartu eta korrika bueltatu zen kobazulora.»	(62)
zakar 'zarama'	« Zakarretarako erabiltzen den poltsa beltz bat eman dio eskura.»	(85)
zaplatako 'aurpegikoa, zapladakoa'	«Autobusaren lehenengo eskailera igotzerakoan kalefakzio itogarriaren zaplatakoa sentitu zuen aurpegian.»	(62)
ziega 'espexeratuen gela'	«Zuk kartzelako lehen egunetan ziegako kide izandako Marielak bezala mugitu nahi zenuen gerria.»	(123)
zital 'doilorra'	«Gaixotasun zital hark senarra eraman zionean...»	(26)
zoro 'eroa'	«Horregatik egin dio txilio , horregatik jarri da zoro baten moduan, eta horregatik esan dio joateko...»	(95)
zuhur 'zentzuduna'	«Afarian zuhur agertu da emakumea eta manera onak erakutsi ditu.»	(36)
zurrumurru 'marmarioa'	«Eta ikusleen zurrumurruak danbor hotsekin nahasten hasi direnean, danborrak ezustean gelditu dira.»	(109)